

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamenduzko lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nabarmenenek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak).

Agindu hori bete nahian, aurretiko kontsulta publikoa egin zen foru dekretu baten proiektuari buruz. Foru Dekretu horren helburua bi erregelamendua aldatzea da, hots, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua (martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia) eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua ere aldatzeko (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia), betiere erraztasunak eman daitezten tributuen kudeaketa sistema berri bat ezartzeko, hain zuzen ere Informazioa Berehala Emateko Sistema, abian sartu baita 2018ko urtarrilaren 1ean, balio erantsiaren gaineko zerga kudeatzeko, sistema hori aplikatzeari dagokionez espezialitate handiagoa behar duten kolektiboetarako edo jarduera sektoreetarako.

Herritarrek iradokizunak aurkeztuz gauzatu da parte-hartzea, honako helbide elektronikoaren bitartez desarrollo.normativo.fiscalidad@navarra.es, 2018ko urtarrilaren 31tik 2018ko otsailaren 20ra.

Ezarritako epea iraganik, aditzera ematen da ez dela iradokizunik jaso; hortaz, aipatutako foru dekretu proiektuaren testua prestatuko da.

Iruñean, 2018ko otsailaren 21ean

ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO
ZERBITZUKO ZUZENDARIA

José Javier Zabaleta Zúñiga